



lazko mozzorro kukaña arrakastatsua izan zen, eta aurtan mozzorro gehiago espero dituzte. **ARATZ GARCIA**

Karmen eguna izango da kaiko jaien aurtengo abiapuntua

Kaiko karramarroa prest dago Karmengo jaietarako. Datorren asteazkenean abiatuko dira, uztailaren 16an. Beraz, festen ohiko azken eguna izango da hasiera. Bost eguneko egitaraua prestatu dute, iaz baino egun bat gutxiago. Ordea, jarduera kopuru bera mantendu dute.

Inaxio Esnaola Aranzadi

Parte Zaharreko eta kaiko herri-tarren unea eta festa iristear da. Uztailaren 16tik 20ra bitartean egingo dituzte Karmengo jaiak, kaian. Aldaketa esanguratsuen egutegia irauli izana da. Normalean, Karmen egunean bukatzen dira festak, baina aurtan kaiko egun seinalatua izango da abiapuntua. Horrez gain, egitaraua murritzeta erabaki dute. Bost egune-

koa izango da, iaz baino bat gutxiago. «Aldaketak aldaketa, kaiko jaien izaera aldarrikatu nahi dugu. Sinpleak dira gure festak, parte hartzaileak eta auzotarrei zuzendurikoak, batez ere», adierazi du Asier Gurra jai batzordeko kideak —goiko argazkian karramarroz jantzita ageri dena da—. Iazko «giro paregabea» mantentzea dute helburu, festez asko gozatu zute-

lako. «Gure filosofia da goizetik kaian jarduerak egotea, eta ez izatea soilik arratsaldetik gauerako festa», nabarmendu du Gurreak. Ildo horretatik, pasa den urteko berrikuntzak indartzea erabaki dute: «Arrantzaleen aldeko bazkaria egin genuen iaz estreinakoz, eta harrera oso ona izan zuen. Auzoari begira sortu genuen jaiak borobiltzeko, eta aurtan merezi duen tokia ematea erabaki dugu». Horrela, arrantzaleen aldeko bazkaria aurreratu dute, eta hilaren 18an izango da. Egun berean izango da umeen eguna, eta biak uztartuko dituzte.

Gazte eguna, berriz, egunez mugitu dute. «Azken urteotan ostiraletan egin izan dugu. Halere, ostegunera pasatu dugu, historikoki horrela izan delako», azaldu du Gurreak.

Baserritarrei aitortza

Hilaren 16ko jaien hasierako txupinazoren protagonistak Bretxako baserritarrak izango dira. «Azken urteotan bizitzen ari diren egoera zaila dela eta, merezi duten aitortza eskaini nahi diegu. Proposamena luzatu genien, eta

berehala eman ziguten baiezkoa. Esateko dutena entzun nahi dugu», esan du Gurreak.

Kukaña izan ohi da kaiko jaietako bereizgarrietako bat. Hori dela eta, pasa den urtean probatu zuten mozerro kukaña parte hartzaileagoa izatea dute helburu. «Oso dibertigarria izan zen, baina aurtengo erronka da jende gehiago mozerrotzea. Gainera, Bilintxi Balantxa auzoko bertso eskolako kideek girotuko dute kukaña», adierazi du Gurreak.

Herri kirolak ere estimatzen dituzte kaian, eta sortu berri den Parte Zaharreko Jarana herri kirolak taldeari tarte berezia eskainiko diote.

Parte Zaharreko eta Antiguako herri kirol taldeen arteko dema errepikatuko dute kaian, jaien azken egunean

«Duela hilabete inguru Antiguako frontoian egindako dema kaira ekarriko dugu. Berriz ere, Jarana eta Antigua aurrez aurre ariko dira. Errebantzarik egongo ote da?».

Musika taldeen egitaraua ere aipatu nahi izan du jai batzordeko kideak: «Eskaintza ona osatu dugula uste dut». Potato, Against You, Txapela Brava, Mugan, Toc eta Herenegun ariko dira zuzenean. Noski, La Jodedera ere ez da faltako. ●



ASTEAZKENA 16

10:00

Aita Mariri lore eskaintza.

18:00

Haur danborrada.

19:30

Buruhandi eta erraldoiak.
Txokolate jana.

20:00

Txupinazoa.

20:30

Kontzertuak: La Jodedera + Txapela Brava.

23:59

Gazte Txupinazoa.

OSTEGUNA 17

12:00

Zumba herrikoia.

12:30

Pintxo lehiaketa.

14:30

Gazte bazkaria.

17:00

I. Joserrita Korkonada Saria.

18:00

Elektrotxufla elektrotxaranga.

19:30

Sardina jana.
Kantua ta zikina.



ILAZKI
EUSKALTEGIA

HABEk diruz lagundua



Gora
Karmengo jaiak!

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus

22:30

Kontzertuak: Against You + Potato.

OSTIRALA 18

10:30

Puzgarriak.

11:00

Haur kukaña.

11:30

Eskulan tailerra eta aurpegi margoketa.

12:00

Buruhandi eta erraldoiak.

Bertso-triki-poteoa.

14:30

Arrantzaleen aldeko bazkaria.

Jarraian Anuk eta Eleneren kontzertu
akustikoa.



17:00

Haurren jaitsiera Kaiarribatik.

18:30

Pasai txaranga.
Txokolate jana.

19:30

Sardina jana.

19:45

Holly festa.

22:00

Zezensuzkoa.

22:30

Kontzertuak: Mugan + TOC +
Herenegun.

LARUNBATA 19

10:00

Artisau azoka.

11:00

Auzoko joaldunak.

12:00

Kantujira Portaletatik hasita.

Ondo pasa karmenetan!

Oiartzun




● Gozotegia: Ijentea, 2 · Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6 · Tel.: 943-29 09 07
● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com  

ERAKUSKETA / ERAKUSKETA / ERAKUSKETA

MARE CLAUSUM

NORENA DA ITSASOA?

2024/07/05 — 2025/11/02



EUSKAL ITSAS MUSEOA MUSEO MARÍTIMO VASCO

Argazkia: San Telmo Museoa



12:30

Harri-jasotze eta aizkora erakustaldia: Udane Ostolaza, Joseba Otaegi eta Jon Arizmendi.

13:00

Buruhandi eta erraldoiak.

14:30

Herri bazkaria.
Jarraian, mus txapelketa.

18:00

Helduen danborrada.

19:00

Txokolate jana.

19:30

Sardina jana.

22:00

Zezesuzkoa.

22:30

Kontzertuak: Burutik +
3ttu erromeria.

23:59

Ekitaldi feminista.

IGANDEA 20

11:00

Muxikoak.

12:00

Desafioa: Jarana Parte Paharreko herri kirol
taldea vs. Antigua.

Gazta dastaketa.

Bilintxi-Balantxako bertsolariak jai guneko
ekintzak giroten.

13:00

Mozorro kukaña.
Tortilla txapelketa.

17:00

Haurren mojito txapelketa.

18:00

Helduen mojito txapelketa.

19:00

Pasai txaranda.

22:00

Zezensuzkoa.

22:15

Kontzertua: Itzal erromeria.

23:59

Jaien amaierako traka.



LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA

**Gora Kaiko
Karmengo jaiak!**

Euskaraz jardun eta lantzeko talde ezberdinak ditugu:
erretiratuak, alfabetatzea, titulu homologatuak (A1, A2, B1, B2, C1, C2), autoikaskuntza, mintzamena...



Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra



943-21 99 07



legazpi6@legazpi6.eus

**E
N
B
A
T
A**



Kale Nagusia, 14 - DONOSTIA
943424797 - 609314962
enbatadenda@gmail.com
www.enbata.eus

Ondo pasa Kaiko Karmengo jaietan!